# "PRINCIPE DE VIANA"

SUPLEMENTO MENSUAL DE LA REVISTA, DESTINADO AL FOMENTO DEL VASCUENCE

DIPUTACION FORAL DE NAVARRA

Franqueo concertado
N.º clasificador 34/60

Delegado de la Institución Príncipe de Viana
MARCELINO GARDE

*Amargarren urtea. — Pamplona, Noviembre-Diciembre - 1975 - Azaroa-Abendua, Iruña. — 117-118-gn. zenbakiak*

DIRECTOR: V. GALBETE


# Eguberria, egun berezia

Argazkia: I. de Zulaga

## ZAUDETE BATEAN

**Gau beltza-illuna**
**lurrakin muxuka.**
**Jainko-Seme Itza**
**eginda Aurtxoa.**

**Aurtxo txiki,**
**zeru Eguzki:**
**argitu gu,**
**otza kendu.**

**Eman gu denori,**
**Euskal-Erriari,**
**mundu guziari:**

**indarra,**
**kemena,**
**Pakea.**

**Nere izenean,**
**gaurko egunean,**
**jaia ospatzean,**
**barruko pozean,**
**zaudete batean.**

*Olabeaga'tar J.*

Eguberria, aldi berezia denik, ez daike benetan ukatu.

Aski da begiak zabaltzea, alde guztietan Eguberrietako ezaugarriak ikusteko; aparteko giroa sortzen duten ezaugarriak.

Edo, aski da begiak erstea, gure barnean Eguberrietako deia aditzeko; Eguberriak, dudarik gabe, beti ekartzen digu dei bat; zerbaiten deia:

**Ator, ator, mutil, etxera!**

Edo, Norbaiten deia...

Gizakien artean, sort-egunа ospatzen oi da; eta norbait ospetsuago den, orduan eta zabalera geiagoz ospatu ere. Nolakoa izan bear dugu Kristo, Aren Jaiotza —**Eguberriak**— zeru-lur guziak ospatzen bait ditue?

Gertaera orrek ez du parekorik; ez, muduaren kondaira bitan zatitu arte: «Kristo baño leenago», «Kristo'ren ondoren». Zin-ziñez esan dezakegu Eguberria, mundu guziarendako Egun Berria dela.

Izan dira eguzkiaren azpian aundikeriz betetako jendeak. Eta zer asmatu beren buruak goraltzeko? Beren balentriatik as, eta berriz munduaren biziari asiera eman: «Erroma eraiki zen urtetik...», «Frantzi'ko Iraultza ondorengo zenbakarren urtean...», «III-garren Garai-urtea...» Baña, giza-gauzetan, dena aldakor, dena igeskor.

Eguneko mundutarrik «oriena» ta «gorrienak» ere ezin dira beren bidean ibilli, Kristo arras aaztu ta bazterturik. Chu-Ku - Cheng'ek «Oraingo Txina'ren Kondaira Laburra» liburuan, amabi aldiz izendatzen du Kristo asierako amar orrialdetan.

Batzuek nai ala ez nai izan, or dago Kristo, denboraren Jaun eta Nagusi.

Eta nondik Kristo'ren indar ori? Beraren eginkizunetik, egian. «Ez da munduarendako beste Bitartekorik, ez da beste Salbatzaillerik». Denok gaude norbaitek edo zerbaitek menperatuak, naiz azkatasunarendako izanak izan. Ondamen aundiaren iturburuan pekatua dagola, esan bearrik ez da; pekatu oro, ororen pekatua. Eta menpekeri guzien sustraia kentzeko, egitazko Eguberria. «Berak askatuko baitu bere erria beren pekatuetatik».

Eguberriak ez dira bakarrik karrikak argiz apaintzea; saltzailleak, egun auetan geiago salduz, aberasteko; ez dira bakarrik «Zorionak» purrust eta parrats ereiteko, edo seme-alabak gurasoen etxera, «gaztaiña tximelak jatera» bakarrik, itzultzeko.

Eguberriak, Argia, Maitasuna eta besteendako gogo-onena dira, Kristo ori dena bait da. Eta Kristo ta Eguberriak, orobat.

**Urteak dun egunik ospatsuena,**
**Euskalerria'n beintzat,**
**Gabon eguna,**
**oldozmenez beterik jartzen gaituna...**
**Zorioneko Gabon,**
**Gabon kutuna!**

(K. Enbeita)

1975
1976

**Eguberri on!**
**Urte berri on!**

## FRANCO IL DA

Madrid. — Oriente Jauregira Etxeko Zuzendari Jaun Argiari:

*Frantzisko Franco Bahamonde, Jaun Agurgarri, Naparroa'ko Semetzat Artua, il dala-ta, Laterri-naigabe sakonaz bat egiñik, Forudun Aldundi onek bere dolumiña ta atsekabearen berri ematen dizkizu, aren bizia Elburuen eta España'ko aunditasunaren alde etengabeko zerbitzuan eskeiñi zuen gure Gudalburua il daneko ontan. Gure sendimendu auek agertu, otoi, Alargun Agurgarriari ta bere seme-alaberi, Jaun bereziaren eriotza dala-ta.* — AMADEO MARCO. Lendakari-ordeak.

## JUAN CARLOS I, ERREGE

Madrid. — La Zarzuela Jauregira Mondejar'ko Markes Jaunari:

*Laterri-Buru Jaun Agurgarria, Naparroa'ko Semetzat Artua, il dalarik, une illun auetan, Forudun Aldundi Onek bere samin eta dolumiñaren berri jakin arazten du. Aldi berean, Printzeari berrizten dizkio bere sendimenduak, eta España'ren zerbitzuan gogoz lan-eginten jarraitzeko asmoak, Printzearen Agintaritzapean, au elduko danean «Gora Errege» oiu itxaropengarriz. Biotz guziz afurtzen du.* AMADEO MARCO. — Lendakari-ordeak.


Se autoriza la copia para la investigación.
© GOBIERNO DE NAVARRA

# EUSKAL ERRIKO LEIOA

### ETXARRI-ARANAZ'KO ALABA OSPETSUA



**Maritxu Beltza, monja Agustina Mixiolarien Buru-Nagusia**

Etxarri - Aranaz'en jaioa da. Zortzi senide artean, zazpigarrena. Sendi kristau zuzen ta guraso zintzoetik jaio ta azia.

Bi aizpa dira lekaime; bestea, bere urrengoa, Sor Teresita (jaio-izena, Jabiera). Beste aizpa bat ere izan zuen lekaime; aspaldian, Hernani'n, l e k a i m e etxean illa.

Emen agiri zaiguna, Sor Maria Inmaculada —Beltza'tar Maritxu— da. Emezortzi urtekin lekaidian sartu zan, Naparroa' 'ko Monteagudo errian.

Buru argia, bereala lekaidi guzien Buru autatu zuten. Agintarintza ontan, bederatzi urte buruan egondu da. Ainbeste urte neketsu ondorean, nekaturik, agintaritza utzi zuen, eta Benezuela'n egondu da lau urtez.

Aurten, Madrid'eko Triana karrikako beren etxean, Batzarre Nagusia izan dute. Ta, berriz, lekaime guzien Buru autatu dute.

Artu bitza gure zorionik gartsuena!

# JANARIAK (II)

**ARTA-BERDEA.** Belar - tokian ondoen gordetzen dana da; baña, gure artean, geienean, berdetan ematen da. Jan astuna dalako eta ganadua aizatzeko arrixku aundia daukalako, ez da batean geiegi eman bear. Amar kilokin, kilo babaren indarra berditzen du.

**GARI-LASTOA.** «Goierri» aldean, asko ematen zaio ganaduari. Txikituta eta arbi edo erremolatxakin nastuta, oso pozik jaten dute bei-idiak. Bost bat kilo lastok, kilo babaren indarra dauka.

**ERREMOLATXA TA ARBIAK.** Negu aldean belar ezeak egiten duana egiten dute. Negurako, belarrak igartzen dira, ta arbi-erremolatxak bete bear utsune au.

Bi janari oiek oso onak dira, batez ere bei eta txerrientzat. Ur asko dutenez, esne ugari eman arazteko oso onak dira, gizentzen ari diranentzako bezela; jateko gogoa geitzen baidute. Jateko oien ostoak, belar ezearen parekoak dira.

Arbi-erremolatxa, ganadueri j a t e k o eman baño len, garbitu egin bear dira. Oietatik ez da geiegi eman bear. Egunean, eguneko janarien erdia baño geiago eman ezkero, urtsuegia gelditzen da, ta berakoa sortzen du. Bei bati, egunean, 30 kilo erremolatx eman leikio, ta idi aundi bati, 50 kilo; txerri bati, 10 bat kilo.

Bei ta txerriei, puskatuta eman bear zaie, estegorrian katiatzeko arrixkua du-ta.

Puska txikiegiak egitea ere ez da ona, agoan ondo txikitu gabe irensteko arriskua dago, edo-ta urdallean aztuntasuna sortzekoa. batik bat.

Txerriei egosita ematen ba'zaie, egosi ondoren gelditu-ura berealaxe kendu bear da ta edateko ez eman. Txerrama, txerrikume ta apoak, gordiñik jan lezateke, bitamina C asko dualako.

Neguan, arbi izoztua ematea, oso txarra da; esteetako ondoezak sortu arazten bai ditu.

**AUDELA**

# EUSKALTZAINDIA

### EGUZKITZA JAUNAREN OMENALDIZKO BATZARREA LEMOA-N

Joan den azaroaren 30ean ospatu zen Lemoako herrian Jon Eguzkitza jaunaren ehun urte muga. Euskaltzaindiak, hasi berrian, lau euskaltzain bizkaitar izan zituen, eta hoietarik bat, Eguzkitza jauna. Oroigarrizko omenaldiaren antolatzailea Euskaltzaindia bera izan da, Bizkaiko Diputazio, Lemoako udal eta parrokiarekin batean.

Goizeko hamar t'erdietan meza, herriko elizan, hamabost apaizek kontzelebraturik. Franzisko Arraibi jaun apaizak egin zuen sermoia, Eguzkitza jaunaren irudia, gizaki eta batez ere apaiz zen aldetik, argituaz.

Meza ondoren oroitarri bat agertu zen eliz aurrean.

Gero, berriz, herriko eskola berrietan Euskaltzaindiaren batzarre agiri eta ospetsua. Mahaiburuan zeuden Diputazioen ordezkariak, herriko alkatea eta euskaltzainak.

Bizkaiko Diputazioaren buru ordea den A. Unzeta jaunak eman zion hasiera batzarreari. Ondoren agurrezko hitz batzuk esan zituen euskaltzainburuak, batzarre hura zergaitik eta noren oroitzapenetan egiten zen gogoratuz. Gero bi hitzaldi, Eguzkitza jaunaren irudia, bizitzea eta euskal lanak zehatz aztertu zituztenak: bata Eusebio Erkiaga euskaltzainarena, eta bestea Aita Xanti Onaindia euskaltzain laguntzailearena.

Hitzaldi hoiek bukatu eta, euskal irakasle tituluen banaketa egin zen; hots: aurtengo etsaminetan garaile irten direnei hartako diploma eta agiriak eman zitzaizkien. Bi mailatako tituluak eman ziren: erdiko maila eta beherengo mailakoak. Guztira 164 irakasle titulu.

Batzarreari azkena emanez, Euskaltzaindiko buru ordeak, herriko alkateak eta Diputazioko buru ordeak hitz batzuk esan zituzten etorritako guztiei eskerrak emanez, eta agintarien aldetik euskerari laguntzeko dagoen gogoa agertuz.

Jaialdia anaitasunezko bazkari batekin bukatu zen.

### BATZAR IREKIA DONIBANE-GARAZIN J. BARBIERREN OMENEZ 1975-XII-21

Donibane-Garazin (Baxe-Nabarre), 1975eko abenduaren 21ean, Hermezaren ondotik, eguerdiko hamabiak laurden gutiagotan, Herriko Etxean bildu dira: Garaziko hauzapeza, L. Villasante euskaltzainburua, J. Haritschelhar buruordezkoa, L. Dassance, J. L. Davant, X. Diharce, A. Irigoyen eta P. Lafitte jaun euskaltzainak; L. Akesolo, G. Alfaro (Lantziri), J. L. Alvarez Enparantza, J. Alliéres, P. Andiazabal, M. Atxaga, J. Berrojalbiz, J. Camino, P. Duny Petré, J. Etcheberry, J. Hiriart-Urruty, M. Itçaina, X. Kintana, M. Labeguerie, J. L. Lizundia, S. Onaindia, E. Salaberry eta J. J. Zearreta laguntzaile jaunak, J. San Martín idazkari dela.

A. Arrue eta P. Larzabal jaunak ezin etorria adiarazi dute.

Hasteko, Donibane-Garaziko kantari taldeak J. Barbier zenaren «Oilarra kukurruka» **(Amaxo)** kantatu du.

Euskaltzainburuaren hitzak, batzarkideak eta Garazi agurtuaz. Luralde honen ohore bezala agertzen du lehen euskarazko liburua bertako D'Etxeparerena izan zelako eta hainbeste idazleen artean Jean Barbier zena eman zigulako.

J. B. Etxarren jauna mintzatu zaigu «Baxe-Nabarreko literaturaz», XVI. mendeko D'Etxepare, J. Etxegaray eta A. Logras-engandik hasi eta mendez-mende gure garaikoak arte bakoitzaren berri bereziak agerraraziz. Aipatu dituen izenik berezienen arteko dira: D'Etxauz, López, S. Monho, Lapitze, Arbelbide, L. Etxeberry, Oxobi, Apestegy, J. Etxepare, Landerretxe, S. Arotçarena, Haristoy, eta abar.

Ondorean, Piarres Lafitte euskaltzain jauna mintzatu zaigu «J. Barbier idazle eta olerkariaz». Donibane-Garazin sortu zen 1875eko uztailaren 9an, 1898rako apaiztu zen eta bi urte geroago Teologia doktoradutza egin zuen Tolosako Katoliko Mihintegian eta handik bost urtera Baionako Katedralean Bikario jenerala; bere gogoz Senpereko apaiz 1913tik 1931an hil zen arte. Kantak, ipuiak, kondairak eta bi eleberri idatzi zituen. Olerkari gisa B. D'Ibarrart eta J. B. Elizanbururen mailakoa omen zen.

Bukatzeko, Donibane-Garaziko hauzapezak agurrezko hitzak esan ditu eta ondorean J. Haritschelhar, Euskaltzaindiko buruordeak, guztiei eskerrak eman dizkie.

Herriko Kontseiluak ohorezkomedaria eskaintzen dio Euskaltzaindiari, eta gero Hotel Central-ean anaitasunezko bazkaria egin da.

**Euskaltzaindiaren Prentsa Bulegoki Agiria)**

### B. ESTORNES JAUNAREN GIJON'EN ITZALDIA

**Beñat Estornes Lasa, idazle ta euskaltzale naparra,** «Zabalkundea», «Auñamendi» **euskal liburu bildumak, eta** «Enciclopedia General Ilustrada del País Vasco», **argitara eman dituena**

*Abendua'ren 16'ean, Euskal Kulturatzaz itzaldi bat, Gijon'en, Beñat Estornes Lasa'k emana.*

*Jende multzo ugari baten aurrean, izlariak euskal kulturaren oinarrizko bideez jardun zuen. Aozko literaturaren kondaira aurreko erroak azaldu zituen, eta bertsolarien gertakaria eta erri-kulturazko beste azalpen bat izkuntzaren zear.*

*Ezagutarazi zuen orobat elebikotasunaren arazoa eta ikastolena, 1794'an euskal-frantzes eskoletan egin zan euskerazko irakaskintzaren entseiu ofizialetik onuntza.*

*Era berean, literatura idatziaren gorabeerak aditzera eman zituen 1545'tik asi eta egundaiño, zeinbait idazleen: Lizardi, Orixe, Lauaxeta ta Jauregi'ren idazlan sorta batzuk, b e r e n itzulpenekin, irakurriz; eta, gerla ondoko emaitzen artean, Mikel Lasa, Aresti, Etxaniz'enak.*

*Idaz-ikuspegia o s a t u zuen plastikazko antzeen, teatroaren eta beste kultur-azalpenei buruzko mugimendu sortzaillearen aipamen laburrez, eta bertako ta kanpoko argitaldarien egungo ekoizpenaren berri emanaz bukatu zuen.*

*Euskararen baterako ofizialtasunaren alde atera zan, bai bizitzako egoera guztietan, bai irakaskuntzako mail guztietan. Biziki txalotua izan zan.*

# AURTXOEN TXOKOA

### EGUARRIAK

Eguarriak, bai gauza polita. Denak, pozik; danok, pozaz beterik. Jende guztiak arpegia poztuta du. Jesus jaio da Belen'en gu salbatzeko.

Denak pozik etxeetan; baiñan, pensatzen ba'degu pixkat, ez dago jende guztia pozik. Badaude batzuek ez jantzirik, ez bazkaririk; eta ez daude pozik.

Etxera joan-da ori esaten ba'degu, poza joaten da, eta pensatzea egiten digu. Denok anaiok, eta batzuek poz eta besteak negar?

Aiei lagundu ezkeroz, egongo gera pozik.

Poztu gaitezen lurrean gizon onak. Poza ta parra izan bear du Eguarriak.

CARLOS OLAETXEA, 13 urte
Escolapios-TOLOSA

### JESUS'EN IPUIA

Abendu'ko illaren ogei-ta-lauean Aurtxo polit bat jaio zan. Aurtxo au jaio zan munduko Erregea izateko.

Herodes Erregea oso gaistoa zan eta agindu zun Jesus iltzea; bañan, Ama Birjiña, Jesus eta Jose, Nazaret'a joan ziran. Jesus'ek mirari asko an egin zun; aietako bat au da:

Jesus'ek lagun bat zaukan, Judas. Txorik egiten ari ziran loiakin. Jesus'enak politak ziran; Judas'enak gaizki eginda zeuden. Eta Judas'ek ondamukin autsi zitun Jesus'en txoriak; bañan Jesus'ek esan zun:

—Txorik, egan egin!

Eta txoriak egan egin zuten.

Judas arrituta gelditu zan, eta negar egin zun. Eta Jesus'ek barkatu zion.

F. XABIER ODRIOZOLA, 13 urte
Escolapios-TOLOSA

# Euskal abeslari baten otoitza

**UXOLA**

1975,gko «Abestaldeentzat Leiaketa» egunez.
Euskal Abestiaren

Ene Jaungoiko, entzun egizu
bertsolariak diona:
mundua egiñaz, egin zenuan
zuretzat dezun gizona;
ta berarekin egin ba'zendun
naigabe ta zoriona,
zorion ori lortzeko, eman
diguzu musika ona.

— o —

Abestutzeko Euskal-Erria'i,
Zuk emandako doaiaz,
egun negartsuk aldatzen ditu
pozgarri eta alaiaz.
Nola ez, bada, eskerrak eman
nere gaurko kanta-gaiaz?
Ez utzi iltzen euskal aotan
abestutzea euskeraz.

Gobierno de Navarra. Departamento de Educación.
© GOBIERNO DE NAVARRA

# UR ZIKIÑAK



**Gure edozein erreka, ateratako batean; ikaragarrizko indarra, aren arabera:** «Ur askok, indar askok; baiñan, beti gainbera...»

Ongi pentsatzekoak dira, gaur emen esan nai nituzken gauzak. Aspaldin, eguneroko ogia bezela daukagu gaia. Egia esateko, kezkatua nabil, kristauak gerala-ta. Ikusten danez, geroago ta txepelago daude, gure gazte artean, apaiz egiteko «*bokazioak*» eta ez da arritzekoa: diranak igezka badabiltz.

Orain amar urte, ez gendun oraingo gertaerarik ikusten eta entzuten. Arrezkeroz, maiz entzuten ditugun berri miñak biotzean minduten gaituzte.

Guk beti ain maite izan ditugu apaizak; auek kalean zear zijoaztela, erri txikietan beintzat, txapela kendu oi genien. Gure arimetako zain-zaleak bai dira! Apaiz baten ikuste bakoitzean alako bigunkeria nabari oi dugu. Orain, berriz, ez dakigu ere norbait apaiza den ... jantziz, beintzat. Lengo sotaiaz lotsatu egiten al dira? Ori esan leike. Ta ortan, beintzat, naiago dute, gu ibiltzen geran bezela ibilli.

Besterik ez ba'litz, gaitzerdi izango litzake. Etxean gaudela, seme-alabak ekarri oi dute alako apaizaren berriren bat. Eta sarritan, galdera mingarri onekin: —«*Jakin al dezute, alako apaiza ezkondu danik...?*

Eta ez da ori bakarrik. Beralaxe entzuten da batzuek banatu, alde-egin ta ezkontza-autsi naiean dabiltzela.

Bide ontatik zer lortu leike? Apaizik eza. Ba al dago gauza tristeagorik apaiz gabeko erri bat ta errelijio gutxitzen ari delarik?

—*Orduan, ez litzake obe guziak ezkontzea?*

—*Jendearen artian ere ez dira denak ezkontzen. Zergaitik, ba, apaizak?* Ezkontzeko ala ez, bokatzio berezia bear da. Eta naidutena esan ta ere, apaiz egin ta gero utzi, sinismenari kalte aundia egiten da. Nik ez dut onekin esaten, nigandik urrun, apaiz izandakoak ez direla guraso ta gizon zintzoak izango.

Esaten dutenez, batzuek emakumearen aitzakiz beren erabakia artzen dute; bainan nere ustez, liburu batzuetan agertzen diran ideiak kaltegarriagoak dira arazo auetan.

Apaizik gabe gelditzen ba'gera, zer? Bataiatuak egonez gero, il zorian, naiz apaiz bat ez izan ondoan, egizko biotz-damutasuna izanez gero, Jaungoikoak barkutuko ditu biziaren ondarrak.

Orain katolikotaraiño sarturik dago ateoakin ibiltzea, ta bere alde egitea; kristauok, denak maite bear ditugu, bai, baiñan aiekin «ibiltzea», San Pablo ez dago konforme...

Gauz auek penagarriak ditugu, baiñan argi ta garbi idatzi bearrean gaude. Ur garbiak onak dira edateko, naastuak eta zikiñak, berriz, kaltegarriak.

*E. OZKIN*

## Indarrez jabetzeak, lapurketak, erailtzak

Oitu-ta gaude... Gaur egunean ez gaitu arritzen. Nun-nai irakurri ta entzun oi ditugu olako gertaerak. Eta ez emen bakarrik; bai-ta mundu guzia zear ere. Zenbat eta zenbat gogora dezazkegu... Batean, diru-etxe bat dala, bestean, bitxi sal-toki bat dala, eta abar. Baztar guzietan lapurketak, ebasketak, indarrez jabetzeak.

Eta zergatik gerta dira gauz oiek gure egunetan? Nun da gauz arrigarri ta kaltegarri oien sustraia? Nork egiten dituzte lapurketa oiek? Batzuetan, lapur oiek erri ta iri baztarretan jaioak dira; etxe txarretan, txaboletan bizi diranak, sendi galdu ta ondatuetan aziak, txikitandik asi-ta beti etxetik kanpo bizi diranak, aur ziranean inkastetxetara joan ez diranak, beartasun gorrietan ta gosez azi diranak.

Neonek orrelako etxe asko ikusi ditut Madrid'en. Zenbat aldiz ikusi det: orrelako etxetxo txiki batean gela ta sukalde bat besterik ez senide ta sei umiendako. Ta an konpondu bear jan, lo ta guzia egiteko. Kanpoko atea erdi zabaldu ta atzea ezin itxiz. Zer ikasi dezakete ume oiek? Gauz onik ez.

Beste batzuetan, lapur oiek, naiz ongi aziak izan, naiz etxe onekoak izan, ogen ta zuzengabekeri asko ikusi dituzte beren inguruan. Onak ziran, bañan gero okertu dira. Ikusi dute ez dutela bear luketen azkatasuna, ez dutela bear luketen bizi-bidea, ez dutela bear luketen bizitz alai ta osasuntsua; beti estutasunean, egunean ta estuago lepoko lokarri korapilloa, egunean ta zor aundiagokoekin, egunean ta zallago bizitza, egunean ta garestiago gauzak, egunean ta lan geiago egin bear ala-ola bizitzeko. Atzo bat gosta zana, biar bi balio. Eta lan-sariak beti azpitik, beti txikiak, beti motxak, puxkaka-puxkaka altxatzen dizkigute. Eta gero esaten digute urtean ainbeste ta ainbeste garestitu dala bizitza, badakigunean ori eztala egia, baizik askoz geiago garestitu dala. Eta bitartean, ainbeste alper beren inguruan. Batzuk ainbeste eta beste batzuk ain gutxi. Batzuk lanean lertirik, izerdi paltsetan, eta beste batzuk berriz itsas ertzetan, jostaketetan, oturuntza bikañak egiten, an-emenka zelai ta landa-etxe bikañak. Eta besteok gauza guzietan zergak, egunean eta geiago. Erri-xeak diru eman Abenda-erri kutxarako, ta jakin gabe zertarako ematen duen dirua, zertan erabiltzen dan dirua; errira ekartzen diran ta erritik eramaten diran gauzetan beti zorretan; egunean ta zor aundiagoak; eta beti beera.

Erria ez da itxu. Gizarte ezberdintasun ta ogen guzi oiek ikusten ditu, ta amurrarazi egiten du. Ezta, bada, arritzekoa an-emenka ikusten baditugu ainbeste lapurketa, ainbeste indarrez gauzetaz jabetze. Ez errundu lapurrak, gizarte berbera baizik. Era ontan gauzak oker dijoazte, bide txarra daramagu. Gerrikoa estutu bear ba'degu, guziok estutu dezagun, ez batzuk bakarrik.

**LIZARRUSTI**

## ULTZAMA'KO SEMERIK BIKAIÑENA

### IRURITA ALMANDOZ MANUEL GOTZAI JAUNA

### III

### BEIN BATEAN

Bein batean, urrutiko konbentu batetik mojak deitu zuten sermoi bat eukitzeko. Trena artzera berandutxo eldu, ta osta-osta sartu zan bertan. Bidean zijoala, jakinarazi zioten tren ura etzala gelditzen bera zijoan erriko geltokian. Zer egin bere estualdian? Oroitu zan Jesus Aurraren Teresa Donearekin, eta esan zion:

—*Teresatxo! Zer egingo dute mojatxo oiek, ni joan gabe? Onela utziko dituzu?*

Irurita Jauna gelditu bear zan geltokira eltzean; trena, izugarrizko galgaketa batekin gelditu zan, ta Manuel len-bait-len irten zan. Beste jendearekin joan zan makinistarengana, ta au entzun zion:

—*Moja bat ikusi det, Karmelita jantziakin, eta bera ez arrapatzearren, gelditu det trena. Ta gelditu-ta bereala, aienatu da.*

Beste iñork etzuan moja ikusi. Irurita Jaun berak au askotan kontatu oi zuan gero Barzelona'n.

### BAZTERTUEN MIXIOLARI

Balentzia'ko Eliz-barrutia oso aundia zan. Alderdi batzuek, menditsu ta urrutiegiak. Zabarkeri kabiak! Ezin zenbatu Manuel Jaunak bazter oietara egin zitun joan-etorriak.

Bere laguntzalie Guardiola'tar Eduardo Jauna, maixu nazionalak dionez, Irurita Jaunak mendiz mendi berreun kilometro kuadratuak, arat eta onat, Xabier Santuaren antzera, ikustatu zituan; ta, basabazter oiei «*Vicariato*» izena ezarri ere bai.

Alako basamortuan arkitu zitun 44 auzotegi mixerian jarriak; oien artean nabariena *Reatillo;* gero, gure Manuel'ek *Reatillo del Sagrado Corazón* deituko zuena. Errixka au txabola txorta bat besterik etzan. Erri urbillena, amabost kilometrora, mendi bidetxurrez. Elizarik eta eskolarik eta argirik, bapez. *Reatillo'n* eliza eraikitzeko 170.000 pezta. bear izan zitun: garai artarako diru-pilla aundia! Jesus'en Biotzak eskuratzen zion guzia. Ta laister, Arzobispo Jaunak lenbiziko Erretore izendatu zuan *Reatillo*'rako.

Erri au bezela, beste zortzi ere osoro antolatu zituan Irurita Jaunak, Balentzia'ko Kanonigo izan zan bitartean.

### ERROMA'RA

Balentzia'n il zan, 1865'an, Sakramentu Txit Santuaren Maria Mikaela Donea. «Adoratrices del Santísimo Sacramento» esaten zaion Lekeimetaldea berak eratutakoa da; ta beazun-eri edo «kolera» garaian gaixoei laguntzearren, bera ere gaitz orrekin kutsututa, maitasun opari il zan.

Moja onen beatifikazioko Auzibide edo Proceso deritzan lanbidean, Irurita Kalonjea Sinismen-eragille izan zan; ta 1925'ko Urte Santuan, Balentzia'ko erromes taldeakin, joan zan Erroma'ra, Mikaela Donearen Beatifikazioko egunerako. Jai ori, Garagarrilla'ren 7'an ospatu zan.

San Pedro Eliza Nagusian sartzerakoan, erromesak «*Izan zaitez beti*» abestu zuten. Ta, bereala, abots zoli, sendo, ta goxo batek «*Ez da zerurako*» jarraitu zuan: Irurita Jaunak.

### GOTZAI

Kanonigo egin zutenean, txantxetan esan omen zuan Manuel'ek:

—Kanonigo izatea, or nunbait. Txarrena da, gero Gotzai izatera elduko naizela.

Ta ala gertatu ere. Abendua'ren 20'an, 1926'an, Aita Santu Pío XI'garrenak, Konsistorioan, Lerida'rako Gotzai izendatu zuan.

*AGINAGALDE*

«Miquelet» **izeneko ezkil-dorre famatua, Valencia'ko Katedralean ikusgarria**

Se autoriza la copia para la investigación.
© GOBIERNO DE NAVARRA

# BERTSOLARIA

## «OLERTI-EGUNA» LARREA'N

Iñork esan du poesi-giroa aulduz doala. Egia ote? Zornotza'ko Larrea'n ba-da alan ere giro pixkat oraindik. 1961'an asi ta urtero, utsik, egiteke, ospatu izan da emen «Olerti Eguna». Aurten ere bai, jakiña.

Azaroa'ren 23'an, Kristo Errege egunez. Egun ederra! Egun-sentian bazterrak zuri, izotz maindirapean. Baiña eguzki aitak laster galdatu zituen zoko ta inguruak. Egun gozatsuagorik udazkenerako! Ala ere, gu arteko giro barrabanaren bildurrez edo, etzan igaz aiña jende bildu. Baiña, bai polito! Ta emen giñanok, gogo ta umore onetan, eman genion olako egunari dagokion ospe ta oorea.

Meza nagusi ostean, olerki batzarra. Elkarri ongi etorria ta bostekoak emanez gero, sariketara bildu edo artutako poesi, estalkiak zabaldu ta zein norena zan jakin-azi genduen. Lirika saillerako, lan oso baten pusketak zenbatu ezkero, 40 lan artu ziran. Eta poema luze bat. Bertsolariak eta alegi-zaleak etziran antza olermin eta, garaia eldu arte, ezer ez bialtzea obetzat jo zuten.

Lenengo saillean «*Bordari*»'ren «*Eraskiñak*» izan zan sariztatua, ta bigarrenean Martin Ugarte'ren «*Burruka*» poema. Bi lanak, ederrak, buruz ta biotzez. Fernando Artola'k, «*Bordari*»'k, lendik ere badu liburu eder bat, «*Gorain-tzi*», eta onen eraskin bat bialdu digu, oso arin, zailu ta sentikor egiña. Eta Martin Ugarte'k baditu zortzi-amar poema, ederki taiutuak, argitaratzea merezi luketenak. Urtero bialtzen digu bat edo bat, eta badu noski merezia, beste iñork baiño geiago. Aurtengo onetan, bere aurtzaroko ta gaztetako biotz-zauskada ta len-aorpenak kantatzen dizkigu, bertso borobil goxoetan kantatu ere.

Lirika saillean, gaiñera, auek izan dituzu aipagarrienak: Sabin Muniategi'ren «*Bost poema*», Aurre - Apraitz'en «*Iskillutuaren Gutuna*», Luis Mari Muxika'ren «*Zezenaren mirabe*» ta Paulin Solozabal'en «*Orduan*» eta «*Zauriz dago*». Zorionak guztioi!

Larrea'ko «*Olerti - Eguna*»'k, ezin dezakegu uka, badu bere aparteko ondarra, zaragi zaarreko ardaoak legez; au da: bere izan-legea du, amabost urte auetan ari ta ari artu duen kutsu ta giro berezia. Bioa aurrera!

*O.*

## EUSKALDUN HIL-HERRIAK

1902'an Urruña'n sariztatua

**Airea: «Gitarra zartxo bat dut...»**

Elizaren ondoan, oi Eskualdun haurrak,
gure hilen herriak zoin diren ederrak!
Han dagozi bakean aitaso zaharrak;
han ditut etzan nahi nik nere hezurrak.

Kurutze, lore eta elorri xuriak
elgarri josirikan dira ezarriak.
Iguzkiak bezala, ilargi-zariak,
ongi apaintzen ditu gure hil- herriak.

Primadera goiz-goizik, etxe aldetikan,
xoritto bat heldu da berriz kanturikan;
berri hau salaturik hobirat musikan,
badoa loreño bat handik harturikan.

Udako arratsetan, zeruko izarrak
ihinztatuz doazi lur meta nabarrak;
zinez erran liteke ahaiden nigarrak
bilduan daduzkala hil-herriko lurrak.

Lur-pean lo dagozi gure arbasoak,
iguzkirat itzuliz zango ta besoa;
zeru gainerat, aldiz, daduzkate soak,
direlakotz gelditzen Eskualdun osoak.

Igande guziez, han herria da biltzen;
beren egitekoez ez dira ixiltzen.
Hobian, berehala, hila da higitzen,
zeren dituen haurrak ondoan aditzen.

Elizan direlarik haurrideak sartu,
leheneko kantuak ditu ezagutu;
haren hezur gaixoak dira ikaratu:
lur pean «airea» du berak akabatu.

Anjelus erran eta buru-has emanak,
hil-hobien ondoan dagozi gizonak;
andrek, aldiz, dauzkate lurrean belaunak,
zerurat doazila otoitz kartsuenak.

Hilak bakarrik dira, orduan, gelditzen:
beso baten gainean, oro dira jartzen;
atseginekin dute herrian aditzen
lehengo errabota pilotaz aditzen.

Ilun beltzean, dira entzun irrintzinak:
Kantabre arbasoek kinkatzen suztenak.
Hilak lokartu dira hil-herriak denak:
ohikoak dagozi beti Eskualdunak.

**J. BARBIER**

## «Gerediaga»'koeri

(Doiñua: «**Markesaren alaba**»

Egunak egunari
zor dion argian,
emen eldu gerade
denok Geredia'n.
Emen eldu gerade,
denok Geredia'n,
egunak egunari
zor dion argian.

Biotzak elkarturik,
denok familian,
gure zarrak bezela,
emen Geredia'n.
Gure zarrak bezela,
emen Geredia'n,
biotzak elkarturik,
denok familian.

Gizonak gizonari
zor dion egian,
«Geredia»'koeri
eskari garbian.
«Geredia»'koeri
eskari garbian,
Gizonak gizonari
zor dion egian.

Lagundu dagiogun,
indartze berrian,
gure Aritz Zarrari
bizitza guztian.
Gure Aritz Zarrari,
bizitza guztian,
lagundu dagiogun
indartze berrian.

Zugaitzak beti gorantz
egiten ba'digu,
zergaitik gu berantza
tristezan amildu?
Zergaitik gu berantza
tristetzan amildu,
zugaitzak beti gorantz
egiten ba'digu?

Zuzentasun leiala,
betiko legetan,
eman ta zabal zazu
gure egunetan.
Eman ta zabal zazu
gure biotzetan,
zuzentasun leiala,
betiko legetan.

Eta egun berria
etortzen danean,
gazteok, ez aaztu
zarren egunean.
Gazteok, ez aaztu
zarren egunean,
orduko egun berria
etortzen danean!

Egunak egunari
zor dion argian,
emen eldu gerade
denok Geredia'n.
Emen eldu gerade,
denok Geredia'n,
egunak egunari
zor dion argian.

**TONTORREKO NIK**
(1975-XI-1)

## GARAZI'KO HERRIA

Juanes Barbier zenaren oroitzapenetan
P. H. (1975-XII-21)

**Lau mendez Beherrobia'k**
**higatu du harria.**
Dechepare **Jaun Apezak,**
**Nafarroa'n sortia,**
**egin zitien bertsuak,**
**ta hetaz liburia.**
**Eihalarre'n oiharzunak**
**jotzen du beharria:**
«Oi Heuscara, lauda ezac
«Garacico herria!»

**Agur, gure baserriak,**
**Donibane hiria,**
**Irati'ko pago gaitzak,**
**Arradoi'ko mendia!**
**Agur, Artheko bortiak,**
**Urkulu'ko dorria,**
**Orriaga'ko leiziak,**
**Basa-Jaun'en tokia...**
**Kanta beti, koblariak,**
**Garazi'ko herria!**

**Garazi'n, zer bihotzdunak,**
**edo jende saindia!**
**Hor,** San-Frantses Jatsuarrak
**hedatzen du fedia;**
**han,** Huarte **jakintsunak**
**argitzen Espainia;**
Charles Floquet **Presidentak**
**gobernatzen Frantzia...**
**Emazkik gizon handiak,**
**Garazi'ko herria!**



**Goiz huntan, Euskaltzaindiak,**
**Donibane'n bildia,**
**goretsi du, —zer eleak!—**
Barbier **Apez maitia.**
**Hunen bertsu ederrenak;**
**baitzen olerkaria!**
**Hunen alegi poliitak,**
**eta Gizon Saindia...!**
**DON-IBANE, begirazak**
Jean Barbier'en **herria!**

IGORTZE

**Orai, xuti Euskaldunak,**
**Gora Euskaltzaindia!**
**Gaztia, zuzenki hartzak**
**arbasoen bidia:**
Euskaldunki lauda ezak
Garazi'ko herria!

Piarres HEGUITOA

## «GOIZ ARGI»

Arpegia garbitu
ta eguzki margoz,
«**Goiz Argi**» datorkigu
alaiago askoz,
gaztetu zaigularik
biotzez ta zankoz,
arnas-berri zabaltzen
itxaropen zantzoz.

Zabal ditzagun, bada,
euskaldunon naiak;
arbasoengandikan
ditugun sustraiak;
bereizgarriak diran
erri-izan-gaiak:
izkuntz, odol, oiturak,
zazpi lur anaiak.

**UXOLA**

«Goiz-Argi» **berriztatuaren ataria**

# NERE FAMILIA

Adiskideak eska didate
bertso batzuek jartzeko;
bañan ez daukat gogo aundirik
oraindik nik kantatzeko.

Alargundu-ta, geroztik ona,
daukat tristura aundia...
Bi alabatxok, suiak, illobak,
eman didate bizia.

Umetxo onek neri eman dit
orain bizitzeko poza;
bere amona bizi den arte
ez du faltako laguntza.

Goizean jeikitzen naizenean,
aren ondora nijoa;
bere seaskan, aingerutxoa
lo dago bero-beroa.

Azkenean ikusten nauean,
asten da parrez begira;
musu bat ematen diot eta
pozik noa lan-tokira.

Fabrikaz geroz, berealaxe,
ni Aintzoain'go baserrira:
txakur, auntz, ollo, eta antxumea
nere zai beti baitira.

Antxume ori guk jango degu
Eguarri bigarrenian;
lurreko suan, brasa bizian,
erreko det kerrenian.

Akabatzeko txanpaña edan
jarriko gera tenplian;
merendatzeko gogorik gabe,
asiko gera musian.

Kafiak, kopak, jokatu eta
deneak umore onian;
ordu onian lotara joanda,
begiak argi, goizian.

**LUZIA GOÑI**



# Eguzkitza zanari

**MARKUE**

*(Lemona'n, 1975-11-30'an, Euskaltzaindiak, eta bere erri osoak, egin zion omenaldiko bazkal ostean, «Markesaren alaba» doiñuan Bitaño argiak abestutako bertsoak.)*

Milla bederatzireun ta
irurogei ta amabost,
Zemendi azkenean
batzarturik gagoz;
Zemendi azkenean
batzarturik gagoz,
milla bederatzireun ta
irurogei ta amabost.

Jon Batist Eguzkitza
kristau-abadea,
eta goren-gorengo
euskal idazlea;
eta goren-gorengo
euskal idazlea,
Jon Batist Eguzkitza
kristau-abadea.

Bizitzan eman zuen
neurri aberatsa,
eta Euskal-Erriari
biotz ta bizitza;
eta Euskal-Erriari
biotz ta bizitza,
bizitzan eman zuen
neurri aberatsa.

Orain, guk, esker onez,
biotz-biotzetik,
aintza eman daiogun
gizon aundi oni;
aintza eman daiogun
gizon aundi oni,
orain, guk, esker onez,
biotz-biotzetik.

Milla bederatzireun ta
irurogei ta amabost,
Zemendi azkenean,
batzarturik gagoz;
Zemendi azkenean
batzarturik gagoz,
milla bederatzireun ta
irurogei ta amabost.

Lemoa'ko erriak
seme argi bat du,
gaur emen Batzar ontan
ospatutzen dugu;
gaur emen Batzar ontan
ospatutzen dugu
Lemoa'ko erriak
seme argi bat du.

Gizon apala eta
osorik zeatza,
idazle garbia ta
euskera aberatsa;
idazle garbia ta
euskera aberatsa,
gizon apala eta
osorik zeatza.

Lenen Euskaltzaindiko
izan zan Bizkai'tik,
Urkixo, Azkue ta
Txomin Agirre'kin;
Urkixo, Azkue ta
Txomin Agirre'kin,
lenen Euskaltzaindiko
izan zan Bizkai'tik.

Gora Eguzkitza ta
gora Euskaltzaindi,
gora euskera eta,
gora Euskal-Erri;
gora euskera eta
gora Lemoa-erri,
gora Eguzkitza ta
gora Euskaltzaindi.






# GABON-POZA

**Otzaren muxu zakarraz
goibelik dot ludia...
Iñor ez doa gain-leraz,
ez ernemin lilia,**

**Aberri-miñez bakarka
—eta Jainko antsitan—,
jarduna nozue, deika,
mendi-zelai zuritan.**

**Muiñean ba-dot beroa
—argi-printz eguzkia—;
bea latz, goiak orroa;
ez naz bildur, egia.**

**Eguberri poz betean...
Zeru-lurren Jainkoa,
pizti ta lasto artean,
otz daukazu Kristoa.**

**Guk, barriz, txori ta mixar,
ta gorosti lagunak,
dan-danok izaki azkar,
zuori nai zorunak!**

**Zuri bai, aur, begi-urdin,
ta zuri zar, lur goza,
jo ta jo ene ereskin
opa, dautzuet poza!**

IGOTZ

# SAN TERESA, OLERKARI

Urrilla'ren 15'an ospatzen dogu Santa Teresa'ren jaia. Eta aurten iñoiz baiño beroago gogorazi bear dogu. Aurten ez dogu, ba, «*Emakumearen Laterri-arteko Urtea*»? Ortan, iñork merezi ba'du, banaka batzuen artean, aulki garaia, Avila'ko Teresa da. Oraintsu jarri eutsan Aita Santuak Irakasle koroia; emakumeetan lenengoa bera izan da bereiztasun ori jadetsi dauana.

Izan be, doai ta gaitasun berezi ta apartekoz jantzia dogu. Karmeldar Ordeneari sua ta arnas barria emon eutsozana. Idazle bikaiña, bere liburuakaz berebiziko zartakoa emon eutsan arima bizi zerutarrari. Or doguz bere idatziak, goi-kemenez beterik; iñork ez lakoxe jakituria ta sua ezarri autsen guztiai. Or ditugu batez be «*Onbidea*» ta «*Bizilekuak*» zentzunez eta artista lez idatzitakoak.

Orrez gaiñera, olerkari izan yakun. Arima aundi guztiak egin oi dabena egin euskun Teresa'k be: esaera —bertso— labur trinkoetan ustu bere barru goi-sutan gartua. Lau sailletan banandu nituan nik «*Onbidea*» itzuli ta argitaratu nebanean: *Lirikuak* zortzi; *Gabon-kantak*, zazpi; *Eskeintzakoak*, iru; ta *Sendikoa*, amairu. Danak, politak eta mamintsuak. Baditu beste guztiak be. Beraz, barru-bizitzaz ez-ezik, olerki-lanetan be iraasle ta maixu dogu.

Irakur egizu urrengo au, «*Il-eziñez*» deritxona.

*AITA ONAINDIA*

## «IL-EZIÑEZ»

Bizi naz, ez baiña enegan,
ta ain ditxarot bizitz goitia
ez ilteak daust
kentzen bizia.

**Joana bizi naz neugandik,
maite-sutan il-bearrez;
Jainkoaren baitan bizi naz,
beretzat nindun maitez jo:
biotza neutsonean emon,
an jarri eustan idatzia:**
ez ilteak daust
kentzen bizia.

**Jaungoikozko espetxe onek
—nire maitezko egoitza—
Jauna dau egin nire jopu
ta azkerik ene biotza;
ta ain yat griñagarri Jainkoa
ene atxillo ikustia,**
ez ilteak daust
kentzen bizia.

**Ai!, au biziaren luzea!
Erbeste onen minkorra!
Espetxe ta kate oneitan
esturik bizi bearra!
Noiz urten-zain nagola soilki
damost oiñaze gorria!**
Ez ilteak daust
kentzen bizia.

**Ai!, au biziaren garratza,
Jainkozko ezti bagea!
Maitasuna baita txit samur,
itxaro ez, baiña, luzea:
ken eidazu, Jainko, pixu au,
galtzairu baizen andia:**
ez ilteak daust
kentzen bizia.

**Il-bearraren uste gozoz
Bizi naz bakar-bakarrik,
il ostean, bada, bizia
itxarok dakarst ziurrik;
bizia damozun eriotz,
ez luza, bait-nozu zeuria:**
ez ilteak daust
kentzen bizia.

**Ona, mardul da maite-sua...
bizitz, ez zakidaz ziztrin;
ez daukazu beste biderik,
gaintzeko, galdua egin,
Betor bein eriotz biguna,
betorkit ilte aurkia:**
ez ilteak daust
kentzen bizia.

**Alako bizitza goikoa
egizko bizitza dana,
bizitz au aitu ta il arteiño
biziz goza oi eztana:
eriotz, ez zakidaz muker;
iltzear bizi nadin lenik,**
ez ilteak daust
kentzen bizia.

**Bizitz, zer neikeo nik emon
nigan bizi dan Jaunari,
zeurori ordez galdu ezik
A dagidan irabazi?
Ilda opa dot A jaritxi;
orren dot kutun maitia,**
ez ilteak daust
kentzen bizia.

# IZTEGI-TXOKOA

**A**

**ahaide** aide, askazi
**ahalge** lotsa
**ahapetik** agopetik, agopean
**ahotz-tegi** aroztegi; agoztegi
**akaballan** azkenean
**altaso** guraso
**alaintso** ala ere
**alegia** ipui, ipuin
**arabera** gisa
**araiz** naski, nunbait
**arbaso** guraso
**arraildu** arrandu, arraitu
**arrankura** errenkura, kezka
**arras** guziz, arrunt

**B**

**barraban** gaizto, debru, txerren
**beharri** belarri
**bekatoros** pakatari
**bezan** bezain
**bezen** bezain, bezin
**bezik** baizik
**bidenabar** bidez
**buru-has** buruts

**D**

**dagiogun** dezakiogun
**dakot** diot
**dea?** al da?

**E**

**ehortzi** lurperatu
**elgar** elkar
**erteko** esateko
**errabota** frontoi, pilota-leku
**erranzahar** esaera
**espantu** antzorka, geiegizkoa

**G**

**gaitza** andi, -tzar
**galdatu** galdegin; berotu
**gehio** geiago
**gerla** gerra, gudu
**goretsi** ospatu

**H**

**hasmenta** asmenta, asiera
**heinian** einean, zorian, kasi
**higatu** igatu, zarpaildu,
**higitu** igitu, mugitu
**hornitu** ornitu, eskuratu,

**I**

**igaz** joan dan urtean
**iguzki, iruzki** eguzki
**ihinztatu** urtatu, urztatu
**ihizilari** eizlari, eiztari
**ilargizaria** illargia
**ilun beltz** illunabar, illuntze
**iragan** igaro, pasatu
**irringarri** irrigarri, parragarri

**J**

**jasaitu** atertu
**jauneria** aundikiak
**Jon-Doni,** Yaun-Done, Saintu

**K**

**kartsu** gartsu
**katitxima** Kristau-Ikas-bidea

**L**

**lanabesak** lan-tresnak
**laudatu** ospatu, jaia egin
**loria** poz

**M**

**mota** kasta, arraza, sail, era

**N**

**nehor** iñor
**nien** nuen, neban
**nielarik** nuelarik
**noiztenka** noiz-beinka

**O**

**ohikoa** oitua, jarria, trebetua
**ohono** oraiño, oraindik
**okitu** okatu, ase, bete; anitz
**otordu** otaldi, jan-aldi

**P**

**pilik** tutik, zotzik; deus-ez

**S**

**salatu** azaldu, jakin-arazi
**so-egile** begiratzale
**suztatu** berotu; bizkortu,

**T**

**ttipi** txiki

**U**

**uzki** ipurdi
**uzkur** muker, ezgai, ezkaitz

**X**

**xedea** asmo, jo-muga
**xehe** txiki, ttipi
**xoratia** xoratua

**Z**

**zango** oin, anka
**zanpez** ustegabean, bat-batean
**zanpez** aozpez
**zeren** zergatik
**ziminokeri** tximukeri, anderekeri
**zitien** zituen, zituan, ebazan
**zitua** uzta, aleak, biiak

Se autoriza la copia para la investigación.
© GOBIERNO DE NAVARRA

# LEKU SAINDUTARAKO IBILLALDIA

**(II)**



HAIFA, batez ere, bere kaia da; bost milloi tonela sal-eros gaiak urtero pasten dira

## EGITAZKO «LUR SAINDUA»

Irailla'ren 26'eko argiztean, ikusi genuen egizko «*Lur Saindua*». Batzuk igo gera itxas-ontziko bizkar nagusiraño goizetik, merezi bait zuen. Andik ikusten dena, ikusgarria da. Urrutiko mendi-zerrenda gaiñetik, eguzkia datorkigu dena urrezko su-garretan pizturik. Esango nuke Elia'k «*Suzko Profeta*»'k, Karmel Mendiko lezea utzirik, atera zela «*Ongi-etorri!*» esatera.

## HAIFA, IRI BERRI TA KAI AUNDI

Baditu 300.000 bizilagun; eta Sortalde ontan, dena zaarra den lekuan, Haifa iri berri bat da.

Etxeak, lerdoi artetan, igo dira Karmel Mendi gora. Emen ur-petik zebiltzela itxasontzia gordetzen. Aldi berean, kaia, Erriaren izena ta turisteen dirua zaintzen dituzte judutarrek.

«*Sabbat*» edo juduen jaiaren bezpera da, ta jendeak lana utzirik, etxean pasatzen du arratsaldea, egunkariak irakurtzen balkoietan. Illuntzean, afaria familian egiten dute. Ostatu, taberna ta «bar» oiek, arrotzarendako, ura danez: «*Pasako txoriari, arri-koxkor!* Dena dago emen garesti.

Ez da auto edo beribil askorik ikusten. Jende geiena, Estaduko autobus urdiñetan ibiltzen da. Israel guziak ongi ezagutzen du itz gogor bat: *larritasuna*. Egia esateko, aldamenekoek daukate «*gasolima*». Erdi irri-par batekin, gure gidariak azaltzen digu bere erritarren barrengo kezka:

NAZARET'en unkigarriena, aitz bizian egindako gela...

daude «*Teknion*» eta beste Ikastetxe garrantzitsu batzuk. Au da Israel'go lantegi-alde nagusiena: altzairu, leiar, arrolio... Haifa da, batez ere, bere kaia. Au da Inglesek Palestina'n utzitako gauzarik oberena. Bost milloi tonela sal-eros-gaiak pasatzen dira kai ontatik urtero. Orain eun urte, T. Herzl'ek izan zuen ametsa, bete beterik ikusten dugu. Egunoko arabi-judutarren asarrean, Haifa'ko kaia, Israel'go zilbor-estea munduarekin da. Antxe, alderdi guzietan «*moruak*» daude, itxas-ertzean ezik...

Bazkal ondoan, ontzitik jetxi gera. Mugazainek, jendetasun guzia; baiñan zakel eta zorroen ikusketa, zorrotz egiten dute. Israel beti erne; etsai-giropean dago. Orregatik, uste baiño begi geiago zure gain.

—«*Beldurrik ez*, esan zuten; *munduko iñungo lekutan baiño, zainduago zaudete emen*». Eta jakin genuen «*gizon-igelak*»

—*Jainkoak eman ba'ligu beste Moishe berria, bere makillakin arrolioa jario-arazteko basamortuan...*».

Iruña'n eta gure erritan ainbeste «*tarrantakin*» ikus ez daikenik, Haifa aundiko karriketan ikusten da. Mutikoak futbolean, animarroan, jostatzen ari dira arrigarrizko bitxitegien leio aundi artean, Haifa bait da «*diamante*» edo ikatz-arri ederren munduko Uri-burua.

Afal-ondoan itxas-ontzira datorkigu Israel'go dantza-talde bat. Zein urrun dago au Kairo'n ikus-arazi zigutenetik!

Batzuk «*minué*» antzakoak dira: mutillen jantziak Erronkari'koak dirudite. Nere ustez Europa-erdian judotarrek bildutako dantzak: Hungria'n, Polonia'n, etab.

Azkenean «*karrika - dantza*» itxura duena. Nigana datorkit 17 urteko neskatil tematsua, dantzara atera naiean. Euskeraz esan diot:

—«*Beste ate batean, jo bear*».

—Arek, berriro:

—«*Kastillano!*»

Orduen bota nion nere erriberatik gordetzen dudan oberena:

—*Aivate diay, mueta, que no me cuaca. Quió que risión hariay!*

Ez dut uste ulertu zuenik. Baiñan bakean utzi ninduen. Baziren an ulertu zutenak eta oraindik irriparrez daudenak: On Honorio, Azkoien'go sendagillea ta bere andrea, ni bezala, kargaztulutarrak.

Azkenean eta denen artean, judutarren aberri-agurra, Bibliazko itzez ta kristau mamiz: «*Pakea zuekin!*».

**Evenuh Shalom aleijem;**
**evenuh Shalom aleijem;**
**evenuh Shalom aleijem;**
**evenuh Shalom,**
**Shalom, Shalom**
**aleijem.**

## NAZARET ALDERUNTZ

Biaramonean 5,30-etan ezarri-arazten gaitu aize ezagun batek: «*Levántate, pamplonica...*» Irun-sheme txorri-arrapatzale batek ala ospatu nai izan du Arrizabalaga Kapitain emaztearen sorteguna.

Nazaret aldera goaz, 40 kilometro. Kristauendako, Nazaret Galilea'ko biotza. Nazaret'i «*Nasrat*» deitzen diote; «begirale» esan nai du. Ortatik kristauei ere «*nasratim*» deitzen diete.

Jesus'en denboretan 40 etxe zituen erri onek, gaur 40.000 biztanle ditu. Geienak arabi ta kristauak dira. Zoritxarrez, arraza ta erlijioaren ezberdintasunak erabiltzen dituzte komunistek Udaletxea (Aiuntamentua) bereganatzeko.

Uri gaiñean, Anunziazion'eko Eliz Nagusia, Paulo VI-gnak, saindutu zuen Martxoa'ren 23'an. Eliz «*tipula*» arri zuri-arrosaz egiña dago, ta urrundik zerutik jeitxitako lili aundi bat dirudi. Gaiñean dauken gurutza, Israel'go Gobernuaren gogo-oneko oparia da.

Meza Nagusia, 110 apaizek elkarrekin emana; erromes geienak jaun-artu zuten. Gero, Basilikaren barrena ikustatu genuen. Orain egiña, arrigarria da; lenagokoa, unkigarriago, Ebanjelioko denboretaraiño eten gabe eltzen geralakoz.

«*Kruzada*»-etako eliza baten orma bat oraindik zutik dago. Oraindik ere irauten du bizantinoen eliza baten «mosaiko» batek. Orren azpian, aintziñako eliza judeo-kristauaren arri zaar batzuk opatu dira, eta aietan irakurri leike: «*Jaire Maria!*», au da: «*Agur Maria!*»; eta «*Kyrie, sooson!*», au da: «*Jauna, salba gaitzazu!*».

Eta denetatik unkigarriena aitz bizian egindako gela, aintziñako etxe pobre baten itxurarekin: bertan irakurtzen da:

**VERBVM CARO HIC FACTVM EST**
**ITZA ARAGI EMEN EGIN ZEN**

Eta begirun aundienaz musu bat jartzen dugu arrian.

TABOR mendirako aldapa gogorra

Emen, zer beste oberenik, «*Agur Maria*» esatea ta lekuko oroigarria gordetzea baiño?

Nazaret errian gauza aunitz ikusi daitezke: katoliko, ortodoxo, melkita ta —azkenean— protestanteen elizak. Galilea guztiak, baiña batez ere Nazaret'ek bereganatzen du kristau guztien biotza. Emen denbora geienez bizitu bait zen Jesukristo.

Lenbiziko mendearen il - obi bat ikusi genuen; antza ta denbora bera duen beste bat Jerusalen'en dago. Eta Ama Birjiñaren Iturria.

Arabitarren «*azoka*»'tik ibilli giñen «*txutxeri*» ta betiko oroigarriak erosten.

Haifa'rakoan, Kana'tik igarotzen, Frantziskotarren eliza txiki batean gelditzen gera. Atarian, arabitar kankaillu batek saldu nai digu, urrez pagatuz, bertako eztai famatuetan sobratu zen ardoa...

Lur miserable, arriz jositakoak dira alderdi auetan: ez dago maasti txar, piku-ondo, milgranak, ta olio-arbol bat besterik.

Jesus'en itza ez da unkaillu bat; olako pobretasunen artian, gure diru-gosearen garbigaillu bat baizik.

* * *

Afalondoan, Iraola arrebak nigana urbildurik, itz gogor au jakin-arazten dit:

—Egin dute...!

## GALILEA'ren BARNA

Bart artu genuen zorigaistoko berriakin gaua gaizki igaro.

Bost t'erditan jeiki, ta berriz Galilea'runtz. Anjel Perez Gordo, España'ko praile bat gure gidaria da; bidaldian, tar-tar-tar... Ainbeste itzak eta beste denboretako kondairak minduten naute. Gaurkoan, obeki ixillik eta otoitz egin...

Tabor mendia, Galilea'n nagusienak 770 m. ditu, Tiberiade'tik. Andik, Israel lurraldeko zati aundi bat ikusten da. Ez daike arritu San Pedro'k esan zuenez: «*Jauna, emen ederki gaude!*», Jesus'en irudi-aldatzea ikusirik.

Mendi tontorreko elizan, meza ematen dut España'n illak izan diren bost gaztien alde, beren senideen alde, gure Erri ta jende guziaren alde. An bertan dagon Izen-liburuan, euskaldunen miña nik idatzitako itz auetan gelditu da:

«*Bai, poza emen egotea! Baiñan, gure erria ez dago gaur Tabor mendian, Golgotan baizik. Erruki, Jauna!.*

Eguerdi baiño lentxeago, Jordan ibai ertzean gaude; ur pixka bat biltzen dut, Iruña'n bataiatzeko an zai dauden Asier eta Imanol.

Bazkaria an urbillean, Tiberiade'ko Ostatu eder batean; itxas-ertzean. Ematen digute jatera, bertako «San Pedro'ren Arraiña», su bizian erretakoa. Ez dut sekulan aurkitu ainbeste errenik. Litro batek ardo, 4 dolar. Etxe artako Nagusia, arabitarra ba'zen, judetu zorian zegola uste dut.

«*Zoriontasunetako Eliza*» ere ikusi genituen, baita «*Ogiaren Ugaritzekoa*» ere, IV-gn. mendeko «*mosaiko*» batekin, eta Kafar - Nahun'eko ondakiñetan Sinagoga ederra eta judeo-kristau eliz txiki bat, Pedro arrantzalearen etxea zen lekuan.

Txalupetan sartu giñan, berriz Tiberiade aldera, itxasoaren barna joateko.

Jesus eta bere ikasle joan-etorriaz oroitu giñen. Itxasoko erdian «*Boga-Boga*» abestu zen.

Golan Mendietatik, Siria'ren izkilluak guri begira. Gure ondotik, itxas-ontzi judutar batek bere kañoiak atera zitun eguzkitara.

Eta gure Yaunak «*Pakea zuekin!*» esan zuen lekua, Galilea burrukalari au omen zen...

*CARDE'TAR M.*

TIBERIADE'KO itxasoaren barna, izkilluen begi zorrotzen azpian

BND
Se autoriza la copia para la investigación
© GOBIERNO DE NAVARRA

# ERRIZ-ERRI

## BAZTAN

### AZAROA ETA SAN MARTIN

«*Azaro'ko hilabetea neguaren atea*». Lehenagoko denboretan San Martin garaiak gure eskualdean inportantzi haundia zaukan. San Martin egunean hain zuzen maisterrak ordaintzen zion errenta nagusiari eta sasoin huntan ere izaten ziren etxez eta baserriz aldatzeak. Zenbat eta zenbat maisterrek uzten zuten baserri bat bertze batera bizitzera joateko. San Martin'ek elebide franko sortuazten zituen bazterretan, batzuendako atsegingarriak eta bertzeendako ez hainbertze.

San Martin'etan bestak ere izaten dira eta aipatuko ditut irauten dutenak.

### ITUREN

Mendaur'ko azpian kokaturik dagon Ituren'go Aurtiz'ko hauzoak «*Sanmartinak*» ospatu ditu. Ituren'go herriak bestak aldatu zituen Uztailako hilabetera baina Aurtiz'ko hauzoak ohiturari yarraikiz lehen bezala San Martin'en ohoretan ospatzen dituzte bestak. Bertzetan bezala aurten ere sekulako ikusgarri eta dibersioak eginak dituzte, bestak lau egun iraun dituztelarik. Ikuskizunen artean aipa ditzagun: Artzain-zakurren saioa bi nafartar hoberenen artean. Aizkora apostua. Pilota partidak. Ahari jokoa. Soka-Tira. Bertsolariak. Arrijasotzaleak. Zanpantzar eta txistulariak. Aratxe yatea. Naiko sonu eta dibersio eta gauzik ederrena hauzokoen arteko elkartasuna eta umore ona.

### GARTZAIN

Gartzain'go herriak ere San Martin egunean ospatu du herriko Zaindariaren besta. Hemen ere bestak lau egun iraun dituzte. Herri aunitzek bestak aldatu dituzte, zenbaitzuk neguan zituztelakotz eta bertze batzuk hala komeni zelakotz, baina Gartzain'ek tinko yarraikitzen du ohitura zaharrean eta San Martin'etan ospatzen dute. Eta behinere aintzinatu eta gibelatu gabe beti San Martin besperean «*Baztan-zopak*» etxe guzietan eta bai ostatuan ere kanpotarrentzat. Egunean Meza Nagusi ederra eta ondotik Mutil-Dantza. Erran beharrik ez dago etxe guzietan otordu ederrak egiten dituztela eta plazan ere dibersioa. Bestak ongi joan dira eta gazteak berriz egiteko prest.

### AZPILKUETA

Azpilkueta'ko herrian denbora batez San Andres'etan, Azaroa'ren 30'ean izaten ziren herriko bestak, baina gero pentsatu zuten San Fermin'etara aldatzea, neguan eta eguraldi txarrekin eta holako egun laburrekin ere etzela batere atsegin sasoin huntan bestak egitea eta hala aldatu zuten. Baina «*Sanandresak*» ez daude atzendurik eta egun hortan herritarrek egiten dute beren seinalea Meza Nagusiarekin eta etxeetan otordu ederrarekin. Ohitura hau ez da aisa galduko, ibili ta ibili «*tripe besta*» izaten baita denei gustatzen zaiena eta hori gabe ez baita bestarik.

* * *

Negu gorrian eta ia urtearen akaballan. Azaro'ko elurte harek kalte haundiak egin zituen arboletan, non-nai ageri baitira adarrak hautsiak eta hainbertze ondo arrailduak eta botaiak ere. Bertzalde urtea ongi joan da eta yendeak ez du arrankurik, sabaiak ongi hornituak, zitua etxeratua eta deuseren eskasik ez. Baztandar nekazariak ele xahar hartaz oroiturik uroski erran dezake:

*Elur melur, ez diet hire beldur;*
*badiet etxean arto ta egur.*

*ANZANARRI*

## LEITZA

### ERRE-BIDEA

Lekunberri'tik Leitze'ra eldu denak, amairu kilometro dauzka. Lenago oso mearra eta txarra zan bidea; baña, orain dela bizpairu urte, gure «*Etxe-Aundia*»'k bost bat kilometro zabaldu zitun. Gelditzen ziran, ba zazpi kilometro apaintzeko, eta orain egiten ari dira. Oso ederra geldituko da eta, Tolosa'koa zabalduko ba'litzeke, Azpiroz'koan belarra aterako zala uste dut.

Leitze'koak poztutzen gera lan oriek ikustean. Maite gaituzte nunbait, baña badakite gure «*errejidoreak*» nun eta nola kisketak jo bear diran. Ez uste ez digutela, onen gain, txirrinta pixka bat. Askotan esan izandu du, Iruña'ko «*Pensamiento Navarro*» egunkarian idazten dun Celso Torrea jaunak:

«*Leitza asko bear genituzke Naparroa'n*».

Auxe bai egia dela.

### BALDIN BA'DIRA MUNDUAN

Bi leitza'r, ogei urtetik berazkoak, jokatu nai diote edozeineri, 10 «*kanerdiko*» *ebakitzera* eta 200 kilo jasotzera. Ortarako, ogei urte betetakoak bear dira, jakiña!

Badakite euskaldun guztiak eta daldaraz jarri bitez: bi leitza'r, ogei urtepekoak, edozeineri... Gizarajoak!

### ORAINGO GAZTERIA

Bertsolaria izandu ba'nitz,
botako nitun «kristonak».
Solfan jarriko nitun, ederki,
gaztien lasaitasunak;
mutil zarrak ez nitun utziko
alperkerira emanak...
Errosariyo asko errezatu,
gure partetik, amonak!

Emen badira neska gaztiak,
ez dakit nola esanez...
Gona motzakin ibiltzen dira,
dena irakutsi naiez.
Eskaparaten jartzen dirade,
saldu bear nai ta naiez...
Berrogei duro ateratzeko,
dabiltze oso eziñez.

Kristautasuna daukate aztua,
bait dira ongi moldatzen...
«... *uti club*»'era joan ezkero,
ez dira ezertxo oroitzen.
Olako gauzak ikusi bear,
ez nuan bein ere asmatzen...
Asi bearko Jainko maiteak
ergel auetxek zigortzen.

*UXATEGIETA*

## LEMONA

# Juan B. Eguzkitza eun urte jaio zala

**J. B. Eguzkitza, Lemona'ko seme, apaiz eta euskal idazlea**

Gertakizun au dala, jai eder bat ospatu zan Lemona'n, Bizkai'ko erri txikian, Eguzkitza jaunaren sorterrian ain zuzen. Bizkai'ko Diputazioak, Lemona'ko Udaletxe ta Parrokiak eta Euskaltzaindiak eratu zuten jai au igaro dan Azaroa'ren 30'an, igandez, 1875'eko Azilla'ren 28'an, Eguzkitza jaioa, dugu ta.

Goizean, erriko elizan, meza abestua 17 apaiz eta prailek alkarrekin emana. Bertako seme Arraibi jaunak egin zigun itzaldia, ederki, Eguzkitza Euskalerri'ko gatza izan zala adieraziaz; gatza batez ere, bere itzez, idatziz eta ikasbide onez.

Onen ostean, Juan B. Eguzkitza'ri eskeñi zaion oroitarria estelgetzea, argazki asko ta A. Onaindia'ren itz labur batzuekin. Arriak idazkun au dakar:

«*J. B. Eguzkitza, euskaltzain eta idazle argiari, Euskaltzaindiak, Bizkai'ko Diputaziñoak eta Lemoa'ko Herriak. 1875-XI-28; 1975-XI-30*».

Jarraian dantzari txikien saioa, naiz-ta euriak laga ez.

Amabietan, Lemona'ko Eskola berrietan, bertako areto ederra jendez bete-beterik zegoela, Euskaltzaindiaren kultur batzarra, ia dena euskeraz. Diputazioko Buru-ordeak, Augusto Unzueta'k itzegin zuen lendabizi; gero A. Villasante'k, goratu zuen pizkat omenduaren irudia, Azkue, J. Urkixo ta T. Agirre'rekin batera Euskaltzaindia sortu zuena izan zala esanik, eta Bizkai'ko Diputazioko jaun Unzueta ta Amorrotu'ri, Lemoa'ko alkate Llona'ri ta Bilbao'ko Gotzai-Ordezkoari eskerra emanez.

Ondoren Eusebio Erkiaga, euskaltzaiñak Eguzkitza'ren «*Bizitza ta idatziak*» gai zuela, ordu beteko itzaldi jakingarria egin zigun; lemoatarraren «*Gizarte Auzia*» goratu zuen batez ere. Gero, beste ordu erdian, Aita Onaindia'k ekin zion Eguzkitza'ren «*Eliz-idazlanak*»: sermoi-meta aundia, «*Garbitokiko Arimaen Illa*» (Bilbao, 1915), «*Loretako Illa*» (Zornotza, 1919) ta «*Argi Donea*» (Zornotza, 1933 ta 1935) aztertuaz. Biak izan ziran oso txalotuak.

Azkenez, 164 neska-mutillek artu zuten beren irakasle titulua. Baziran ordu biak eta geiago. Beraz, bazkaltzera. Euria zan zoli kanpoan, zerbait oker egin ba'genu bezela; ala ere, guztiok goretsi nai izan genduen J. B. Eguzkitza'ren Egun au.

*X.*

## GARAZI

# JUANES BARBIER

**EUSKAL IDAZLE XORAGARRIA TA GARAZI'KO APEZ JAUN MAITAGARRIA (1875 - 1931)**

Ni ere, Garaztarra izanik eta Donibane'n sortia, nahi nuke aipatu *Juanes Barbier*'en bizia. Bana gaztegi nintzan harekin ezaguntzak egiteko, ene burrasoen denborakoa zelakotz. Aspaldi danik, Barbier'ekoak gure auzoak ziren Espainia'ko-Karrikan. Ene etxia: Donibane'ko ahotz-tegi zaharra, eta Juanes Barbier'ena: lehengo zaldi-tresnen egiliaren tegia. Segurki, ni bezala entzun dituzke askotan ele hunkigarri horiek, gure aintzinekoen ahotik: «*Karrika huntan, ezta espanturik araiz, denek baitakite nuntik ateratzen giren...*».

Bada beraz ehun urte han sortu zela, eta zorigaitzez, ohi den bezala, herriko Jauneriak ez du sekulan pilik egin gizon aipagarri horren ohoratzeko. Ez duke oraikoa izan behar bekaizkeri mota horrek, zeren eta Jesus'ek ere erran baitzien egun batez «*nehor etzela profeta izaiten ahal bere sort-herrian*». Aurten, hanbeste denbora ixilik egon eta, uste dut gure buruzagiak zanpez iratzartuko direla, zerbait egiteko xedetan Barbier Jaun Apezaren alde. Hala gertatzen ba'litz, ez da harritzeko erranzahar gogor bezan erne hau agertu baitzen lehengo Nekazari, Artzain, edo Ofiziale semen artian: «*Mando hilari, uzkitik olo...*».

Zerbaita ere, hamar edo hamabi urtetan, ene euskal katixima ikasten ari nintzalarik, orhoitzen niz arras ontsa gure Jaun Erretorak kondatzen zitien ixtorio pollit zonbaitez: *Jesus eta Jon-Doni-Petri'ren egitatiak edo nahigabiak, Euskal-Herria'n gaindi elgarrekin ibiltzen zirelarik.* Haurrak oro xoratiak ziren, kondaira horiek zuhur-hitz eta gertakari irringarriez betiak zirelakotz. Ixtorio ttipi horieri esker, ikasten ginien nola bizi behar den gizonki gure herrietan. Ez maltzurkerian, ez eta noiztenka ziminokeri anitz eginez so-egilentzat, bainan egun guziez Girixtinoen lege zaharrak onartuz, bekatorosak izanik ere. Urte zonbaiten burian, jakin nien alegia maitagarri horiek Juanes Barbier Apezak eginak zitiela, eta denak bildiak liburu eder batian. Artetik, ikasten eta ere kantatzen nitien haren bertsu paregabiak, agerkari zonbaitetan aurkitzen ahal baiziren.

Hanbestenarekin, Nafartar gehienek bezala maite nien ezin gehio kantoren edo ipuien entzutia, bainan ez irakurtzia... Hemengo Euskaldunek, 1939'ko gerlaren aintzinan, etzuten astekari bat bezik Euskaraz egina, eta gure herritarrak etziren ohono beren nortasunaz biziki axolatzen. Zer gertatu da geroztik? Lehenik, jakintsun gazte zonbaiten ahalgia, bai eta hasarria, ikusi zutenian nola zapatia zen aitetamen Euskara, urte batetik besterat. Gero, badakigu araiz zer bihotz-minarekin nun-nahiko Euskaldunek jasaitu zituzten Espainia'ko gerlaren ondorioak. Ordian ageri izan da, argi eta garbi gure herritar orok nahi zutela elgarretaratu, beren euskaldungoa bederen hiletik begiratzeko. Ez dea hola agertu, menderen-mendetan bezala, gure motaren anaitasun saindia?

Hortan ziren gertakariak, zinez lotu nintzalarik Euskarari. Eta ene Garazi'ko haur denboraz orhoituz, erosi nien Baiona'n Juanes Barbier'en liburu xoragarria: «*Euskal-Herriko alegiak, ohiduraren arabera*». Ene lehenbiziko euskal liburia zen. Irakurtu dut Jinkoak daki zonbat aldiz, eta zati batzu gogoz ikasteko heinian...! Jarririk liburu horren aintzinian, uste nien buruz-buru egoiten nintzala Euskaldun eta Nafartar okitu batekin. Iduritzen zautan Juanes Barbier izana zela Eihalarre'ko *Bernard Dechepare* bezalako apez gozo bat. Espanturik gabeko gizon ona, beti herritar xehen alde gertatzen zena. Egia erteko, beren ipuietan eta olerkietan, ez dea ageri nahi ziela oroz gainetik menditar gaixoenak jostarazi, ahal dena eginez jende langiliaren penen eztitzeko?

Juanes Barbier, aspaldi hila zen, haren lan ederrari esker hobeki ezagutu nielarik. Bainan orhoitzapenen gatik, ez dea beti bizi oraiko gogoetan? Egiazko Euskaldunek badakite ontsa zer erten dutan hemen, leku gehienetan gure hilak ehortziak baitira elizaren ondo-ondoan eta beraz herriaren erdi-erdian. Lehengo Garaztarrek, hilherri batian sartzen zirelarik, otoitz ttipi hau emaiten zuten ahapetik, lagun batzueri mintzatuz bezala:

**Agur hilak, lehen biziak!**
**Ziek, gu bezala izanak;**
**gu, ziekin izan beharrak.**
**Egun hun dizula Jinkoak!**

Eta nik, mende debru huntan bizirik ere, oihu egiten dakot Juanes Barbier'i: «*Ohore ta goraintzi zuri, Garazi'ko Jaun Apez maitagarria!*».

*GARAZIKO MANEX*

Se autoriza la copia para la investigación.
© GOBIERNO DE NAVARRA

"PRINCIPE DE VIANA"

SUPLEMENTO MENSUAL DE LA REVISTA, DESTINADO AL FOMENTO DEL VASCUENCE

DIPUTACION FORAL DE NAVARRA

Franqueo concertado
N.º clasificador 34/60

Delegado de la Institución Príncipe de Viana
MARCELINO GARDE

Amargarren urtea. — Pamplona, Noviembre-Diciembre - 1975
Azaroa-Abendua, Iruña. — 117-118-gn. zenbakiak

DIRECTOR:
V. GALBETE

## SUMARIO

**PAG. 1** **EGUBERRIA, EGUN BEREZIA. Navidad, fecha singular.** El mundo entero participa —de alguna manera— en la Navidad cristiana. Al aceptar nuestra Era un mundo que, sin embargo, le es hostil, rinde homenaje a Cristo.
**FRANCO IL DA. Ha muerto Franco. JUAN CARLOS I, ESPAÑA'KO ERREGE. Juan Carlos I, Rey de España.** La Excma. Diputación Foral de Navarra manifiesta su pésame y su gozo en tan relevantes acontecimientos.
**ZAUDETE BATEAN. Estad unidos!** I. Olabeaga. Navidad lo exige; eso da fuerza, entusiasmo, Paz.
**EGUBERRI ON ETA URTE BERRI ON!** El deseo cordial de nuestra Revista a todos.

**PAG. 2** **EUSKALERRI'KO LEIOA. Ventanal de Euskalerría.** B. Estornés habla en el «Jovellanos» de Gijón. Una religiosa navarra, Superiora General de las Misioneras Agustinas Recoletas. Un eco poético del «VII Certamen de la Canción Vasca», de Tolosa.
**JANARIAK. Piensos (II).** AUDELA: oportunas enseñanzas sobre la alimentación del ganado.
**AURTXOEN TXOKOA. Rincón infantil.** Temas apropiados para estos días, por dos colaboradores de 13 años, alumnos de Escolapios de Tolosa: C. Olaetxea y F. X. Odriozola.
**EUSKALTZAINDIA.** Boletines de Noviembre y Diciembre.

**PAG. 3** **INDARREZ JABETZEAK. Violencia, muerte, robos.** LIZARRUSTI dice verdades y busca algunas causas de la amarga realidad.
**ULTZAMA'KO SEME BIKAIÑENA. Un hijo ilustre de la Ulzama (III).** AGINAGALDE nos habla del apostolado del Dr. Irurita en Valencia.
**UR ZIKIÑAK. Aguas turbias.** E. OZKIN dice su dolor de viejo cristiano por la turbiedad de los cauces eclesiásticos.

**PAGS. 4-5** **BERTSOLARIA.** «Será verdad —pregunta O.— que el entusiasmo poético desciende»?

**PAG. 6** **LEKU SAINDUTAKO IBILLALDIA. Peregrinación a los Santos Lugares (II).** M. GARDE: Por la Galilea del Señor.

**PAG. 7** **ERRIZ-ERRI. Por los pueblos.** ANZANARRI: San Martín por Baztán y la Regata; X.: en Lemona, celebrando el Centenario del sacerdote y académico Eguzkitza; USATEGIETA: Leiza, nuevas carreteras y... viejos caminos; MANEX DE GARAZI: cálido acercamiento a J. Barbier, «delicioso escritor vasco y amable sacerdote garaztarra».

**PAG. 8** **LIBURUAK. Libros. «Lizardi».** KALPARREGI reseña esta joya editada por Valverde. **«Maite Dedana».** «El autor I. Olabeaga, veterano educador cristiano y vasco, nos da sus amores de siempre, por el camino del verso». M. GARDE.

**LIBURUAK**

# «LIZARDI»

«Lizardi» **zana, gaztegi joana**

Donosti'ko «*Industria Gráfica Valverde*»'k, Joxe Maria Agirre «*Lizardi*»'ren 8 olerki ta itz lauazko idazki bat argitara eman ditu.

Argitaldi oso apaiña. Izki larria. Olerki bakoitza erdarara itzulia, eta marrazki txukunen batez jantzia. Eta Jean Haritschelhar'en Itzaurre batekin.

«Lizardi» olerkari bikaiña zan, «*Euskal Herrian dugun olerkari liriko haundiena noski*» dakar Itzaurreak. Olerkiak mamiz bioztunak eta esaera eztitsu, naro ta gardenaz atsegingarriak. Gipuzkera jator erritarra du. Idazle siñistun ta euskaltzale egizkoa, bere laburtasunaz egarriz uzten gaituna. Erdarazko itzulketa, batena «*Lizardi*» berak egiña, besteena Santiago Aizarna'k eta itz lauazkoa Antonio María Labayen'ek. Marrazkiak, Antonio Valverde'k egiñak.

Orrialde gutxizko liburua, baiña luze-zabalean larria; orrako Lege-gizon, Sendagille, Aokogille *(dentista)* ta alakoen etxetan, ara dijoazenen atxoin-geletan ikuskari jartzeko asmotan egiña ba'litz bezela.

*KALPARREGI*

# «MAITE DEDANA»

Ez da errexa bizia; au ongi ikasia du Olabeaga'tar Iñaki Anaiak. Euskalerri'ko ikastetxetan utzi du bere bizi luzearen geiena; gure mutikoen eziketaren alde eman du. Biotzeko Anai onek ez du sekulan eskutuan izan bere elburu bikoitz eta argitsua: «*Jainkoa ta Euskalerria*».

—*Poztasun eta atseden aundirik, bide ortatik?*, galdetu nion bein batean.

—*Ezin konta!*, esan zidan.

Nik berriz:

—*Eta amets-etenak, bai ta nekeak ere?*

—*Egia da; naikoa ta ez-naikoak ere!*

«Bizitzaren udazkenean» —aren itzak erabiltzeko—, Olabeaga'k «maite duena» olerki-bidetik datorkigu. Ta olerkari fiñe, bikaiña, agertzen zaigu maixu jakituna izan den Anaia.

Bere bertso guztiak samurtasunaz beterik daude, Jainkoarendako, Izadiarendako, Euskal Erriarendako maitasunez beterik. Gaurko ta biarko euskaldunen biotzetan «kilikarri» ditezen.

Eskerrik asko, «*Txotx*» maite ori, zure opariagatik!

*GARDE'TAR M.*

# ELE-MELE

### ILTZERAKOTAN ZANA

Iltzeko zegon senarra, ta bere ondoan azken-naia artzen zion emazteak.

—Au nere seme Yosu'ri uzten diot; beste ura, nere alaba Yone'ri; aragokoa, nere billoba Niketa'ri...

Emazteak, senarraren erabaki bakoitzari atzerapideak jartzen zizkion.

—Yosu'ri uzten ziona, obeki zegon Yone'ri uztia, ta ola...

Iltzer aurkitzen zan senarrak, azkenez, oetik jeiki ta emazteari besorik oratuaz, deadar egin zion:

—Ea, esaidan! Emen, biotatik, nor da iltzera doana?

# ELIZONDO'KO FERIAK



Urriko 24'ean ospatu dira Elizondo'ko feri famatuak. Denbora batez feri hauek hiru egun irauten zuten baina orai egun bat bakarra izaten dugu eta hau ostiralarekin. Gure haurtzaroan ere feriek indar haundia zaukaten eta hiru egunetan yendea ere purrustaka ibiltzen zen, hemen biltzen zirelarik Baztan, Bidasoa, Ultzama, Auritz, Iruñe aldekoak eta mugaz bestaldeko anai euskaldunak ere. Denbora hartan Elizondo'ko feriak arrakasta izugarria izaten zuen eta orai bezala ostirala izaten zen egunik haundiena. Azienda ugari klasean klasekoak eta nekazariak behar dituzten lanabesak, mandoen kaprestuak, aizkora, aitzur eta gainerakoak. Hortaz landara karrika guzia saltzaleez beterik mota guzietako salmentak egiten zituztela. Larunbata izaten zen etxekoandreen eguna eta orduan egiten zituzten beren erosketak, arropak, zapatak eta behar ziren guziak, holaxe etxea gauzez ongi horniturik egon zedin eta familiak ere negu gogor eta bortitzaren beldurrik gabe etxean lasai-lasai eta deuseren eskasirik gabe pasa zezan.

Baina feriaren izena oraindikan ez baita suntsitu, orai ere yende aunitz biltzen da Baztan'go hiri nagusian. Urtero bezala hemen ikusi ditugu Bidasoa, Ultzama, Lapurdi eta Baxenabarra'ko anai euskaldunak, denak Elizondo'ra etorriak feria ikusi bidenabar baztandarren artean egun goxo bat iragaitera, hemengoekin bat eginik gisa hortan anaien arteko lokarriak urratu ez daitezen.

Aurten egin den merkaturik haundiena izan da feri eguneko hau. Iruñe'ko eta Baztan'go tretulariek azienda ederra erakutsi dute eta izan omen dira sal-erosketak ere. Baita ere azkenengo urte hauetan bezala makinari berri aunitz agertu dute; belar ebakitzekoak, lur iraultzekoak eta abar. Moda xaharreko lanabesak ere baziren salgai, eskuz egiten diren gauzak egileek berak ekarriak saltzera, hala nola aizkora, nabal, mandoen kaprestuak eta abar. Azienden sal-neurria edo prezioa holaxe ibili omen zen:

| | | | |
|---|---|---|---|
| Aintzinerako behiak, aratxearekin ... ... ... | 50.000-65.000 | pezta | bakarrak |
| Aintzinerako behi «gorri» edo «suizoak» ... | 42.000-58.000 | » | » |
| Mige ernariak ... ... ... ... ... ... ... ... | 36.000-40.000 | » | » |
| Esne behiak 20-30 litro ematen dutenak ... | 48.000-63.000 | » | » |
| Esne behiak 20 litrotaraño ... ... ... ... ... | 39.000-46.000 | » | » |
| Mige «holandesak» ernariak ... ... ... ... ... | 35.000-44.000 | » | » |
| Gereñuak ... ... ... ... ... ... ... ... ... ... | 75.000-95.000 | » | » |
| Behor ernariak ... ... ... ... ... ... ... ... | 45.000-70.000 | » | » |
| Urteko pottokoak ... ... ... ... ... ... ... ... | 15.000-18.000 | » | » |
| Mandoak (lanerako) ... ... ... ... ... ... ... | 22.000-32.000 | » | » |
| Astoak ... ... ... ... ... ... ... ... ... ... ... | 7.000- 9.500 | » | » |

Igaz bezala eta aintzineko urte hoietan bezala aurtengo ferietan ere bertsolari festa ederra egin dugu. Dudarik gabe egun hau izaten da urtean den egunik egokiena eta aproposena bertsolarietako eta hala ikusi dugu Antxiton'eko trinketea tellaturaño betea. Lau koblari gintuen eta lauak lenbiziko mallakoak: XALBADOR, MATTIN, LAZKAO-TXIKI eta AZPILLAGA. Ordu t'erdiko kantaldia eginik gure bertsolariek erakutsi daukute beren yakitatea zenbaterañokoa den. Yendea loriaturik egona da eta esku-zarta beroekin agertu ere bihotzaren bozkarioa.

Aurtengo feri eguna eguraldi ederrarekin ospatu dugu, aizegoa garai eta eguzkiak ere ederki berotzen zuela, giro ona denentzako, yendearentzat, zitua ontzeko eta baita ere ihizilarientzat, urriko azkenengo egunetan uso pasa ona izan delakoz eta probetxuzko lana egin dutelakoz. Urriko hilabete honek denetarik izan du, elurra eta otza hilabetearen hasmentan eta ego-aize bero eta idor akaballan.

Urriko feriak joan dira eta orai gain-behera negu aldera.

*M. IZETA*

Se autoriza su reproducción a la investigación
© GOBIERNO DE NAVARRA

Imp. de la Diputación Foral de Navarra. - Camino de Sarriguren. - Pamplona. - D. L. NA. 319-64